

Table with 4 columns: HORAIRE, LIEU, SPECTACLE, DISCIPLINE. Lists events for Jeudi 27 Mai, Vendredi 28 Mai, Samedi 29 Mai, and Dimanche 30 Mai.

Ma Bil des jours...

2010eko Maiatzeko antzerkialdia

Zortzi urte jadanik herriak proposatzen duela publiko jarraikazale bati ikusgarri biziadunaren munduaren ezagutzeta!

Bai, zortzi urte, lau egunez egunoroztako bizia edertzen deikuela artista hanitxen arialdiak! Güne zabal, ustegabeko eta zorbait aldiz ezohikoetan ere ariko dira artistak: gure erri enjinarazteko, gogatzeko eta -zentako ez? - gogozkarazteko.

Tchekov, artista, inkamina, txontxongilo, sonüegile eta teknikalarien dohainak algarganatzan dira, ikusgarri hunkigarrien eskentzeko. Mügarik gabe sorkuntzaren bihotzean sartzen gira.

Zortzi urte ere antzerkialdiak arizale ez ofizioako, eskoletako eta ikastetxeetako ikasleer batzari egiten deiela. Denentako bada eta gazteek ere gozatuiko düe. Esker beroenak helarazten deitzegü jaialdiaren arrakastarentako lan egiten düen ofizioako: Tokia alkarte, antzerkialdiaren joanarazale, erakunde publikoak, lantegiak, laguntzaleak, artister batzari egiten deiari familiak.

Bai, ikusgarri biziaduna, berezi eta lilluragarria da aberastarüzün handikoa beita. Solas eta gozamen güne bat izatez, jente jakinatsü, kartüsü eta ezbardin biltzen dütü. Antzerkialdi hon ororer eta ametsean sar gitean!

Béatrice Lahargoue, Mauleko Herriko Etxeko Kültür auzapezordaria

Ez da berrikuntza bat erraiten badeüzüet gaitzaldia jasan dügüla gük ere eta mendiek ez gütiuela diharü-lagüngoa apaltzetanik begiratü!

Gizarteko sailak oro hunkirik dira bena larriena da, hezkuntza eta kültüra ahützen ari direla. Zortzi urte orai antzerkialdiak ikusküzün eta lüraldeko ikastetxeekilako harreman azkar bat badüala. Gaineala, ikusgarrien soegiak urtez urte emendatüz doatza, jakin-minez edo ikus-minez jiten den jentea beita.

Hatsarre-hatsarretik lagüntzen gütiün egitürak ez dira aski holako lehia baten eramaiteko. Düdarik batere gabe, beharko da beste sos-ütüririk atzaman (Eskualdea, Estatüa, Europa...) Euran behar zena erranik!

Orai leküa ütüz dezagün ikusgarrier, alde ororeratik jiten zaizkün taldeez, Euskal Herria, Katalüña, Alemania, Beljika, Akitaniatik... eta ere bai ekialdeko erresümetarik. Tchekhov antzerkia, txontxongiloak, zirkoa, ihakinak, pailasoak, lillüak, müsika, erakuskak... Ez düdat jiteko eta hitzordü hontara kostümaturik bazira, zure lagünak eta ezagünak ekar etzazü, momento horien gozatzera. Antzerkialdi hon.

Tokia Théâtre

antzerkialdiaren egitaraua

GRETA ET GUDULF. CIRCASSIAR BIKOTE ERREGINARAZLEA. DARE D'ART ANTZERKI TALDEA (GARD). IRAÜPENA: 50 MN.

Gudulfek, lagüntzale leiala, kabaret handietako Greta prendari bazterrik gabeko amodia bat etxekitzen deio. Badaki harekila esküeki mintzaten, nihork beno hobeki. Egoera erriegingarrietarik abiatzez, bi arizaleak, mündü hunkigarri eta poetiko batetan ari dira. Amodioari esker, planta lanjerüsetarik elkitzen dira.

Sofi Kantorowicz eta Xavier Martinek « zirka berriaren » abentüa partekatü düe, Cirque de Barbarie, Archaos, Cirque Plume, les Arts sauts, Tout fou too fly, les Colporteurs antzerki taldeetan parte hartzez.

Xehetarüzün haborentako : www.daredart.fr

MAIATZAREN 28AN, OSTIRALEA 14:30 / 20:00 MAULE GAINEKO PLAZA MÜNDORORENTAKO

IMMO HISTOIRES AVEC BALLE IKUSKIZÜNEAN. INKAMINA. AVRIL EN SEPTEMBRE ANTZERKI TALDEA. IRAÜPENA: 45 MN.

Music-hall eta kabaret artean harahonakatzez, inkamina joküen goxotarüzünak, gogobihotzak iharrausten deizkü. Bere zankaluz, bilo hollü, begi fripu eta erri krepautareki, Alemaniako joküariak ikusgarri mota hori itüraz berritzen deikü. Jokü harroak eta kantoreak herrokatzen dira: ororen bürian, sentimentü espantagarri batekila baratzen gira, itürakatzetik gabe eginik beita. Bere dohain handiarekila, amiatzen gütü. Prentsaren ikusmoldea LE POINT kaseta " Aleman uore joküegile horrek, ahoak zabalik ützen deizkü".

Xehetarüzün haborentako : www.avrilenseptembre.fr

MAIATZAREN 28AN, OSTIRALEA 21:00 MAULE GAINEKO PLAZA MÜNDORORENTAKO

SILENCES AMUSANTS D'UN COUPLE EN BLANC. IHAKIN JOKÜ. SIVOULPLAIT ANTZERKI TALDEA. IRAÜPENA: 30 MN.

Sivouplait antzerki taldea Japoniatik horra zeikü eta bere asmaküzün bidajea ez dü batere ekürarazi gaei. Bikote ihakin egile hori, ikuslariarekila txotakatzee, jokü asmatze eta egünoroztakoaren itürä okertzearen artean, taigabe ari da. Aski zale, geroago eta harrogo bilakatzan da ikusküzüna.

MAIATZAREN 29AN, NESKENEGÜNA 15:00 ADINETAKOEN ETXEA MÜNDORORENTAKO

MAIATZAREN 29AN, NESKENEGÜNA 15:30 HIRI ERDIKO BOTÜRA BAZTERGIA MÜNDORORENTAKO

Remerciements aux Mécènes qui soutiennent le Festival

Grid of logos for sponsors including AGF, L'IMMOBILIER SOULÉTIN, Cultzine, AYA, espadrilles GOYÉ, Barlet menuiseries, Ste ARLA, Don Quichotte, YAHUKI, hasty, PRO LAGUNE, INDARRA INFORMATIQUE, OROCBAT, Ribero, JASA FRÈRES, LOCATION & RÉPARATION MAULÉON, etché, ESPADRILLES DE MAULÉON, MEGAM, ESPASOULE, Matthieu BISQUEY ASSURANCES-PLACEMENTS CREDITS, etché SECURITE, and Champion.

Remerciements à Maritxu Lacarrieu, Allande Socarros pour la traduction en basque, et les associations partenaires. A Malandain Ballets Biarritz pour leur prêt de matériels scéniques, à tous ceux qui de près ou de loin nous soutiennent: hébergements des artistes, coup de main, coup de cœur. Ne pas jeter sur la voie publique. Imprimé sur papier recyclé avec encres végétales. Imp. PIERROU - Mauléon - Siret 349 707 034 RM 400

Édito Festival Maïatzen 2010. Hiri antzes que pendant quatre jours, la magie de nombreux artistes nous procure cette indispensable part de rêve qui emboîte notre quotidien! Les artistes qui se produisent dans des lieux ouverts, inattendus et parfois insolites, viennent pour nous amuser, nous séduire et pourquoi pas nous faire réfléchir. Les talents conjugués des auteurs tels que Tchekov, les jongleurs, les marionnettistes, les musiciens, les techniciens font que chaque représentation se met à palpiter tout près de nous et pour nous. Ils nous entraînent au cœur de la création sans barrer et sans préjugés. Hiri antzes que le festival accueille aussi des amateurs, des enfants du primaire, des collègues ou des lycéens. Il y en aura pour tous, nos plus jeunes spectateurs seront comblés. Tous adressons un grand merci à tous les professionnels qui oeuvrent pour la réussite de ce événement: la compagnie Tokia, Cheville ouverte du festival, nos partenaires institutionnels, les entreprises mécènes, les bénévoles, les familles qui accueillent les artistes. Aujourd'hui, le spectacle vivant est unique, magique dans sa diversité, fédérateur parce qu'il rassemble un public divers, passionné parfois, avide ou curieux, qui souhaite partager avec d'autres de vrais moments de détente et de divertissement. Bon festival à tous et entrons dans le rêve!

SEBASTOPOL ONE MAN BAND. SEBASTIEN PISTRE (MIDI PYRÉNÉES). MÜSİKA GIZON. IRAÜPENA: 35 MN.

Müsika tresna hanitxen joile den gizon honek karriken alageratzen kostümaturik da. Joiten düän müsika «old-time» delakoak bazterrak harrotüren deizkü. Tresna ezbardinen baliatzeko dohain berezia badü: Hawaieko gitarra, armonika, ukulele, banjo, «kontrabaxioa», berak egin hoinpeekilako perküzioe süerte bat. Müsikalarri kartüsü honek denak oro armatüren gütü, karrika eta karrikesak!

Xehetarüzün haborentako : www.myspace.com/sebastopolblues

MAIATZAREN 29AN, NESKENEGÜNA 10:00 MERKATÜ DENBORAN 15:00 ADINETAKOEN ETXEA

MAIATZAREN 30AN, IGANTEA 17:15 KÜRÜTXE XURIEKO PLAZA

DENETARIK SOINÜ EGITE. SVINCENT MACIAS (GIRONDE). MÜSİKA LANKIA.

Bazter ütirik diren gaüzak soinütresna gisa arrabiarazten deizkü Vincent Maciasek. Gaüza horik hazkatzen, karrakatzen, tximikatzen, iharrausten, bühürdikatzan, durdülatatzan dütü eta gihari ere horik oro enjinaratzen deizkü. Barnean, gainean, pean buhatzen deie eta buharatzen deikü... Bat beno haboro hortan hasten bagira sinfonia gisako bat plantatzen dügü... Gaüza horik oro müsika tresna egiten dira... Manera hortan biziarez ditagün... hek ere biziarez gitzen!

MAIATZAREN 29AN, NESKENEGÜNA 10:00 MERKATÜ DENBORAN 19:00 - 21:00 HIRI ERDIKO BOTÜRA BAZTERGIA

MAIATZAREN 30AN, IGANTEA 17:00 - 19:00 KÜRÜTXE XURIEKO PLAZA

LOGNETTE DANS POST SCRIPTUM. ANTZERKI ERREGINARAZLEA ETA TXONTXONGILOAK. THÉÂTRE DU SURAUT ANTZERKI TALDEA (BELGIKA).

Ikusgeia, ustegabekieriaz beterik den hesola baten aitzinean agitzen da. Txanogorritxo txontxongilo hor da eta Lognette botzik da: taigabe estonaturik da, asmatzen düan mündü hortan ustegabekieria hanitz agitzen beita. Küjüberiaz ere bazterrak fundi dira. Txanogorritxo baratügaitza da eta Amama ez da beti trenpü honeko. Bena ororen gainetik konta dena otoa da. Lognettek ahalak oro egin dütü otoa ezinago gaixtoa izan dadin...!hakinaz eta zentüzgabekieriaz beterik den ikusgarri harro bat bizitüren dügü. Gerteko europar txontxongilo jaialdian lehen saria ütün 2007an.

MAIATZAREN 29AN, NESKENEGÜNA 18:30 ANDURAIN JAUREGİKO BARRİO

MAIATZAREN 30EAN, IGANTEA 18:15 ANDURAIN JAUREGİKO BARRİO DENENTAKO, 7 URTEZ GOITI

CLOSE-UP MAGIA IKUSGARRIA. IÑIGO GABILONDO AND CO (DONOSTI). EÜSKARAZ.

Karrikan bagina bezala, Txoborrok lillüra joküak egiten deizkü: hori da close-up delako bat. Jenteren eretzean egiten den lillüra joküa edo mikromagia. Lillüra joküaren sail berezi bat da ezagütaraziko deikü Txoborrokoek..

MAIATZAREN 29AN, NESKENEGÜNA 20:00 HIRI ERDIKO BOTÜRA BAZTERGIA MÜNDORORENTAKO

COMEBACK. ZIRKA BERRIA. CIE LOS2PLAY (ESPAİNA). IRAÜPENA: 45 MN.

Urte zorbaitz taulen gainetara agertü gabe egonik, taldea berriz horra zaikü bena...arraberitürük! Hiru gimnastika egilek arialdi errieginarazle eta albidatsü bat eskentzen deikü. Alabadero kü jaüz elibat, sokagaika espantagarriak, pentsaezineko plomatzeak... holarik ikusi dükeüzü lehenago ere segurëan, bena ez jokü egile horiek egiten dütiün erorte harrigarriak. Plomatze-joküak, jenteen airean igortea eta doi-doi arra-atzamaiteak bai eta moda heintto bat xaharreko koreografiak herrokatüren deizkü... Jokü egite horik oro ezinago ontsa eginik dira, ikuslariak erriz leherreginarazteko gisan.

Xehetarüzün haborentako : www.los2play.com

MAIATZAREN 29EAN, NESKENEGÜNA 22:00 HIRI ERDIKO BOTÜRA BAZTERGIA GAÜAZ: MÜNDORORENTAKO

HERENSÜGE. IKUSGARRIA. UZTARO: GONZALO ETXEBARRIA PIANOAN; ELODIE BAFFALIO, JOKÜAN ARIZALE; DOMİNİKA REKALT FILMAZALE; JEF GOYHENEXPE JOKÜAN ARIZALE. IRAÜPENA: 25 MN.

Abiatzea Herensügearen alegia delarik, ikusgarri hau algarganatzee baten ondoaje bat da: pianoa, filma eta antzerkia. Elodie Baffalio pianistaren, Dominika Rekalte jokü-arizalearen eta Uztaroren arteko alkarlan bat.

MAIATZAREN 29AN, NESKENEGÜNA 23:30 TISSAGES DU SAISON LANKIA OHIA MÜNDORORENTAKO

ANTON TCHEKHOV-EN «LA NOCE». HUMANI ANTZERKI TALDEA (HÉRAULT). IRAÜPENA: OREN BAT.

Eztei batetan gira, hontara kümitürük bagina bezala: besta giroa, etxeko gogobihotzak hunkidüzaz beterik, telelekeriak, peredikü hüntzak, bilaskatzeak, tristetzeak, ertzo buiktak... Istoria hau txostakagarria da, bai eta karats eta gogorra ere. Alegia deüs ez, salatzen dütü jentearen tipikeriak, txarkeriak eta ezpirtü herikeriak. Erri-karkaza handi bat bezala, dantzaz ertzo baten gisa emanik zaükü. Ikusgarri hau aize buhet handi baten balde da, kanu kaldübat ütürü... ororen büri, antzerki harro bat egünorotako txarkeriez erri egiteko. Jente deskarat hanitz küritxat leitan etzeiak dira... bena horietan kümitü ginhateki izan ere.

MAIATZAREN 29AN, NESKENEGÜNA 23:30 TISSAGES DU SAISON LANKIA OHIA MÜNDORORENTAKO

